



**Eraispen lanak  
hasita Ategorrietaan**


Lehengo ostegunean auzolanean (mila esker partaideei) azken alzariak hustu eta garraiatuta, dagoeneko hasiak dira Villa Sacramentoko eraispen lanak. Barruko paretak bota eta era guztietako elementuak sailkatuta, datozen egunetan hasiko da kanpoko eraisprena.

**Inauteria datoz...**


Konturatu orduko bertan ditugu inauteriek. Antolatutako ekiten egitaraua eta informazioa zirkular hauetan dituzue: [HH2-3](#) eta [HH4-LH6](#). Halaber, Hurako dantzari eta ikusleen kokapena agiri [honetan](#) duzue. Azkenik, dantzatuko diren doinuak [honaikoak](#) izango dira.

**LH1ekoek aste  
artistikoa izan dute**


Bestela ere ikastolan ederk asko disfrutzen duten LH1ekoek, musika eta zinemaz gozatzeko aukera izan dute ikastolatik kanpo: Alder batetik, musika eta birtzklapena uztarit zituen EOSen emanaldia eta, bestaldeik, zinema saioa TINKO elkartearren bidez.

**LH3koak  
Tabakaleran**


Datorren astean UBIK sorkuntza liburutegiarekin batera egingo dugun tailerra dela eta, gaur espazioa ezagutzen gerutatu dira LH3ko lagunak. Iteera probestuz, egun pasa ederra egin dute eguraldia lagun Gladys Enea parkean.

**DBH2koak Eretan**


Pasa den asteburuan Eretako (Areta okzitanieraz) eski estazioan izan ziren DBH2ko ikasleak. Elur gutxi izan arren, ederk gozatu ahal izan zuten pistelan gora eta behera, eguradria lagun. Giro ederra jari zuten begiraleek, bai ikastaroa bai gaubela paregabek izan baitziren. Hurrengo urtean errepikatzeko moduko asteburua!

**Batxilergo 2koak  
Bordelen**


Aurten ere Batxilergo 2ko frantzes aukerako ikasleak 200 km-ko txangoa egin eta Garona ibairen erzean plantatu dira. Asteburu honetan, beraz, Bordele eta bere inguruak ezagutzen aukera izango dute, frantsesa praktikatzeaz gain.

**XV. Piano Jaialdia**


Zurriola Musika eta Dantza Eskolako lau ikaslek otsailaren 8 eta 9an Andoainen ospatu zen XV. Piano Jaialdian bi modalitateetan parte hartu zuten: Piano bakararia eta pianoa lau eskutara. Zorionak sarituei!



Kaldoera 2020 auzoan ...



... eta Soroan.

Bertan duzue HH-Lhrako Inauterietako jantziak [txosten](#) osoa.**OHARRAK / AGENDA:**

- **INAUTERIAK:** Mozorro librea. Otsailak 20. Euskal Inauterietako mozorroa. Otsailak 21.
- **LH2-3:** EOS kontertu pedagogikoa. Goiz pasa. Otsailak 18.
- **LH3: UBIK tabakaleran.** Otsailak 19 (C taldea), 20 (A taldea) eta 21 (B taldea). Goiz pasa.
- **DBH2:** Heziketa afektibo sexuala. Otsailak 17 (A eta B taldea) eta 21 (C taldea).
- **DBH4 - IEK ikasleak:** REC tailerra. Tabakaleran. Azken bi saioak. Otsailak 20.
- **BATX1 - Ekonomiako ikasleak:** Zinetek. Orona Fundazioan. Otsailak 18.
- **BATX2 - Frantzeseko ikasleak:** Asteburu pasa Bordelera. Otsailak 14-16.
- **Eskola Kirola:** 13. jardunaldia. A eta B. Taldeen irudiak.
- **Antzerki Eskola:** Urteko Batzarra. Otsailak 17. Zirkularra.
- **Antzerki Eskola:** Antzezlan profesional baten parte hartzeko [deialdia](#), 7-11 urte bitartekoentzat.
- **Asialdiko jarduerak haurrentzat:** [Otsailak 14-16](#).

